



HAUR BERMEA AZTERGAI

SAVE THE CHILDRENEK
ARTATUTAKO HAUR
ZBURGARRIEN ETA HAIEN
FAMILIEN EGOERA **EUSKADIN**

2022ko abendua



Save the Children

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. Haurren, nerabeen eta haien familien ezaugarri soziodemografikoak Euskadin	3
4. Haurren eta nerabeen egoera eta haur bermea Euskadin	6
a) Hezkuntza eta lehen haurtzaroa.....	6
b) Hezkuntza eta eskola-jarduerak.....	6
c) Osasun-egoera eta osasun-laguntza	7
d) Elikadura osasungarria.....	9
e) Etxebizitza egokia	10
5. Hurrei dagokien markatzailea haur bermearen dimentsioen barnean	12
6. Ondorioak eta gomendioak	15

1. Sarrera

Dokumentu hau “Save the Childrenek artatzen dituen Haurrak Espainian, Haur Bermearen Esparruan” txostenaren laburpen bat da; dokumentu horrek Euskadin bizi diren hurrei, nerabeei eta haien familiei buruzko informazioa jasotzen du. Estatu mailako txosten horrek Espainiako Save the Childrenek (SCE) egiten dituen jarduketekin lotutako familietako haurren eta nerabeen egoera aztertzen du, kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan; laburpen-dokumentu honetan, hortaz, aztertutako dimentsioen informazio garrantzitsuena jaso da.

2021eko ekainaren 14an, Europar Batasuneko Kontseiluak formalki onartu zuen Europako Haur Bermea ezartzen duen Gomendioa. Berme horren bidez, estatu kideei eskatzen zaie ziurtatu dezatela pobrezia-egoera, gizarte-bazterketako egoera edo beste egoera zaurgarri bat jasateko arriskuan dauden haur eta nerabeek beren garapenerako eta ongizaterako funtsezkoak diren zerbitzu multzo baterako sarbide eraginkorra eta doakoa izatea, dohain edo, kasu batzuetan, oso modu eskuragarrian. Zehazki, honako zerbitzu hauek dira: lehen zikloko haur-hezkuntza (0-3) eta lehen haurtzaroaren arreta, hezkuntza eta eskola-jarduerak, eskolako jangela, osasun-laguntza, eta elikadura osasuntsua eta etxebizitza egokia eskuratzeko aukera eraginkorra eta eskuragarria. 2022ko uztailaren 6an, Haur Bermerako Estatuko Ekintza Plana aurkeztu zen, 2030era arte Gomendioa betetzeko garatu beharreko ekintzak (inbertsioak, politikak eta ekimenak) zehazten dituenak.

Bermea haurren pobrezia-aren aurkako politika nagusia denez, Save the Childrenek berme hori modu eraginkorrean gauzatuko dela ziurtatzen lagundu nahi du, zaurgarritasun-egoeran dauden haurren beharrak monitorizatu. Horretarako, Save the Childrenen programetan parte hartzen duten familietatik ateratako informazioaren bidez –familia horietako haur gehienak Europako Haur Bermearen xede dira–, Save the Childrenek haur zaurgarrien beharrak monitorizatu nahi ditu, Europako Haur Bermearen hedapen progresiboari buruzko hurbilketa bat egin nahi du, erantzun gabeko zerbitzuen eskaria agerian utzi nahi du, eta sortzen diren beharrak hauteman nahi ditu.

2. Haurren, nerabeen eta haien familien ezaugarri soziodemografikoak Euskadin

2022ko maiatzean telefono bidez egindako galdetegi bati esker, **Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartu zuten 102 familiari buruzko informazioa jaso zen¹ (221 haur eta nerabe, eta 164 guraso); Espainiako Save the Childrenen (SCE) programetan parte hartzen dutenen % 9 da hori, gutxi gorabehera². Nabarmentzekoa da Euskadin 6 eta 12 urte bitarteko hurrei zuzenduta daudela Save the Childreneko programak, nahiz eta horietako askok anai-arreba txiki eta zaharragoak dituzten ratio horri dagokionez. Hauek ziren parte-hartzaileen ezaugarri soziodemografiko nagusiak:**


- Gainerakoetan bezala, Euskadin bizi diren familietan mutil gehiago daude (% 51) neskek baino (% 49), baina aztertutako lurralde guztietako alderik txikiena da.
- **Adin txikiagoko haurren pisua txikiagoa da Save the Childrenen programetan parte hartzen duten gainerako familietan baino: % 23k 6 urte edo gutxiago ditu (batezbestekoa baino 2 puntu gutxiago).**
- **Euskadin, aita-amak dituzten familietan bizi diren haur eta nerabeen ehunekoak % 57koa da (batezbestekoa baino 2 puntu gutxiago).** Gainera, familia gurasobakar amadunetan adingabe gehien bizi diren lekua da (% 31) eta familia zabaletan adingabe gutxien bizi diren lekua (% 5).
- **Euskadin bizi diren familien dimentsioa Espainiako Save the Childrenekoa baino handixeagoa da.** Euskadin bizi diren familien % 33k hiru seme-alaba edo gehiago ditu, baina % 9k soilik ditu hiru heldu gutxienez (Espainiako Save the Childreneko batezbestekoa baino 2 puntu gehiago eta 12 puntu gutxiago, hurrenez hurren).

¹ Euskadin bizi diren eta SCEren programetan parte hartzen duten 213 familien % 44 da hori. Lagina nahiko txikia denez, txosten honetatik ateratzen diren datuak eta ondorioak arduraz hartu behar dira.

² Inkestetan parte hartu zuten familietako haur eta nerabeak Euskadin bizi dira, Gasteizen (% 57) eta Barakaldon (% 43), zehazki.

- Euskadin, atzerritar jatorriko gurasoen pisua nabarmen handiagoa da Espainiako Save the Childrenen programetan parte hartzen duten familien multzoan baino. **Haur edo nerabeen % 9k baino ez du jatorri espainiarreko gurasoren bat** (Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino 23 puntu gutxiago). Euskadi da jatorri afrikarreko gurasoak dituzten 18 urtetik beherakoen pisu handiena duen lurraldea (% 66)³.
- **Adinari dagokionez, gurasoen profila Espainiako Save the Childreneko batezbestekoa baino handixeagoa da:** 35 urtetik beherako gurasoren batekin bizi da haurren eta nerabeen % 26 (batezbestekoa baino 2 puntu gutxiago), eta % 43 bizi da 45 urtetik gorakoren batekin (batezbestekoa baino 5 puntu gehiago).
- Halaber, ikasketarik gabeko guraso batekin edo lehen mailako ikasketak dituen guraso batekin bizi diren neska-mutilen proportzioa batezbestekoa baino zertxobait txikiagoa da (% 42, batezbestekoa baino 2 puntu gutxiago), eta % 17, berriz, unibertsitate-titulazioa duen gurasoren batekin bizi da (Espainiako Save the Childreneko batezbestekoa baino 5 puntu gehiago).

1. grafikoa. Euskadin bizi diren familien eta Espainiako Save the Childreneko familia guztien ezaugarri soziodemografikoak



Iturria: familiei egindako inkesta (2022).

3. Haurren, nerabeen eta haien familien egoera sozioekonomikoa Euskadin


Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haur gehienak lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituzten gurasoekin bizi dira, eta zenbait berezitasun dituzte beste lurralde batzuekin alderatuta. **Langabezia-tasak gurasoen % 43ri eragiten die**, eta Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino 4 puntu gehiago da hori (aitak: % 39, eta amak: % 47). Oro har, tasa handiagoa da jatorri afrikarreko gurasoak dituzten etxeetan (% 51), 25-34 urtekoetan (% 47) eta, bereziki, familia gurasobakar amadunetan (% 56). Testuinguru horretan, **Euskadin bizi diren eta Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haur eta nerabeen % 2,7 soilik bizi da bi gurasoekin lanaldi osoan lan egiten duten etxeetan/familietan**, eta % 79, berriz, guraso bakar batekin ere lan egiten ez duen familietan bizi da (Espainiako Save the Childreneko batezbestekoa baino 14 puntu gehiago). Aldi

³ Gogoratu behar da kasu honetan ehunekoaren batura ez dela % 100, haur edo nerabe batekin aita-amak dituelako gehienetan (ama edo aita baino ez duten familietan izan ezik), eta, beraz, aldi berean jatorri desberdineko gurasoekin bizi daiteke. Gauza bera gertatzen da haurrak eta nerabeak gurasoen adin-tartearen eta ikasketak-mailaren arabera bereizten direnean.

berean, **gurasoen jarduera-tasa % 74koa da**, batezbestekoa baino 4 puntu txikiagoa ia (emakumeena: % 62,5). Emakumeen tasa txikiagoa da jatorri afrikarreko amen artean (% 38), lehen mailako ikasketak dituztenen artean edo ikasketarik gabekoen artean (% 47), 3 edo 4 seme-alaba dituztenen artean (% 32 eta % 20, hurrenez hurren) eta bi gurasoak dituzten familietan (% 51).

Horren ondorioz, familien % 45en **hileko batez besteko diru-sarrerak 1.000 €-tik beherakoak dira. Haurren eta nerabeen % 4,1 diru-sarrerarik gabeko familietan bizi da (8 haur), eta datu hori ia puntu bat txikiago da SCEko batezbestekoa baino.**

2. grafikoa. Euskadin bizi diren familien eta Espainiako Save the Childreneko (SCE) familien hileko batez besteko diru-sarreraren banaketa (haur eta nerabeen %)



Iturria: familiei egindako inkesta (2022).

Zailtasun horien erdian, Euskadi da **aztertutako lurraldeen artean familien hileko batez besteko diru-sarrera handienak dituen lurraldea: 1.002 €⁴**. Espainiako Save the Childrenen (SCE) batezbestekoa baino % 18 gehiago da hori. Gurasoetako baten lanaldi osoko enpleguak % 31 igotzen ditu diru-sarrerak, eta langabeziak eta familia gurasobakar amaduna izateak % 9 eta % 13 jaisten ditu, hurrenez hurren⁵. Horren ondorioz, **Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haur eta nerabeen % 93,6 diru-pobreziako egoeran dago⁶** (SCE: % 97), eta hori estatuko batezbestekoaren hirukoitza baino gehiago da (% 28,9), baina aztertutako lurralde guztietako daturik baxuena da. Era berean, **haur eta nerabeen % 89,7k pobrezia-arrisku handia du (SCE: % 94,4), % 62,3k arrisku larria (SCE: % 83,1) eta % 13,3k muturreko arriskua (SCE: % 28,5)**. Lehenago aipatutakoaren ildotik, ez aitak eta ez amak lanaldi osoko lana ez izateak % 15era soilik igotzen du muturreko pobrezia-tasa, eta bietako batek lanaldi osoko lana duenean, % 7ra jaisten da tasa hori. Gainera, haurren muturreko arrisku-tasa areagotu egiten da familia zabaletan (kasu horietan eragiten die gehien, % 70), gurasoren bat latinoamerikarra denean (% 26) edo amak lehen mailako ikasketak besterik ez dituen edo ikasketarik ez duenean eta aitaren figurarik ez dagoenean (% 15).

Azkenik, **Euskadiko Save the Childrenek artatutako eta inkestari erantzundako familien % 52k soilik eskatu zuen bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, eta horietatik % 55 diru-sarrera hori jasotzen ari dira** (batezbestekoa baino 13 puntu gutxiago eta aztertutako lurralde guztietako tasarik altuena, hurrenez hurren). Beraz, inkestari erantzun dioten familia guztien % 29k jasotzen du bizitzeko gutxieneko diru-

⁴ Eta 499 €, etxeko kontsumo unitate baliokide bakoitzeko.

⁵ Aitaren edo amaren langabeziak familiaren diru-sarrerari gutxien eragiten dien lurraldea da.

⁶ Honela definitzen da: diru-sarrera nazionalen erdiko balioaren % 60tik beherako diru-sarrerak jasotzen dituzten etxeetan bizi diren haur eta nerabeen proportzioa.

sarrera, eta familia horien artean ugariagoak dira familia gurasobakar amaduneko familiak, hezkuntza-maila baxuak eta erdi mailakoak dituztenak eta jatorri afrikarreko gurasoak dituztenak.

Azterketari Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) gehituz gero, esan behar da **familien % 67k eskatu zuela DSBE edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, eta, guztira, % 48k jasotzen duela horietakoren bat** (ia lurralde guztien batezbestekoaren bikoitza da hori).

4. Haurren eta nerabeen egoera eta haur bermea Euskadin

a) Hezkuntza eta lehen haurtzaroa

Lehen haurtzaroa da Europako Haur Bermearen lehen dimentsioa⁷. Bereziki, haurrak Haur Hezkuntzan eta beste hezkuntza-zerbitzu osagarri batzuetan duten sarbidea aztertzen dugu lan honetan. Lagina gainerako lurraldeetan baino txikiagoa izan arren (0-6 urte bitarteko 39 haur soilik dira Euskadin bizi direnak), adierazi behar da **haur horien % 79 Haur Hezkuntzan dagoela, eta ratorik handiena duen hirugarren lurraldea da (Valentziako Erkidegoaren eta Kataluniaren atzetik). 0-3 adin-tarteko asistentzia % 58ra baino ez da jaisten**, Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino 7 puntu gehiago. Lagina txikia denez, ezin da azterketa espezifikogorik egin, eta, batez ere, ezin da identifikatu amen jarduera ekonomikoaren eta seme-alabak Haur Hezkuntzara bidaltzeko probabilitatearen arteko erlazioa, beste lurralde batzuetan gertatzen den bezala.

Azkenik, **Haur Hezkuntzako etapan esku hartzen duten 0-6 urte arteko haurren % 41en matrikula ordaintzen dute familiek** (Espainiako Save the Childrenen bigarren daturik altuena da, lurralde guztietako batezbestekoa baino 17 puntu altuagoa).

b) Hezkuntza eta eskola-jarduerak

Txosten honen azterketaren bigarren dimentsioan, hezkuntza-sistemak **6 urtetik 17 urtera bitarteko haur eta nerabeen** beharrei erantzuteko duen gaitasuna aztertu da. Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten adingabeen profila Lehen Hezkuntzako ikasleei dagokie argi eta garbi (% 82, Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino 18 puntu gehiago), eta % 17 baino ez dagokio DBHri (batezbestekoaren erdia). Haurrek eta nerabeek hainbat hezkuntza-zerbitzutara duten sarbidearen azterketa labur batek zera adierazten du:


- **Aztertutako lurralde guztien artean, eskola-jardueretarako sarbide-ratio handiena duen lurraldea da Euskadi** (% 62koa, Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino 18 puntu handiagoa). Proporzio hori ia ez da jaisten DBHn dauden haurren artean (% 55, batezbestekoa baino 16 puntu txikiagoa), baina zertxobait gehiago jaisten da familia zabaletan bizi direnen artean (% 10) edo jatorri latinoamerikarreko gurasoren bat dutenen artean (% 43). Familiek adierazitakoaren arabera, seme-alaben % 23k arrazoi ekonomikoengatik ez du parte hartzen (ehuneko hori % 39koa da muturreko pobrezia izateko arriskua dutenean).
- Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haur eta nerabeen % 74 **kanpaleku, udaleku eta bidaietara** joaten da (%40 doan eta %34 ordainduta). Aztertutako lurralde guztien artean, hirugarren proportziorik handiena da. Era berean, % 16k ez du halakorik egiten, ikastetxeak ez duelako zerbitzu hori ematen, eta % 10 gehigarri batek familiak adierazten duelako ez duela eskaintza horrek erakartzen.
- Haurren % 35 ikastetxeak eskaintzen dituen **eskola-errefortzuko** jardueretara joaten da (Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino 10 puntu gehiago): eskola-orduetatik kanpo (% 3), eskola-ordutegiaren barruan eta ikasgelatik kanpo (% 6), eskola-ordutegiaren barruan eta ikasgelaren barruan (% 26, lurralde guztietatik handiena). Ia lurralde guztietan

⁷ Jaiotzatik sei urtera doan etapa da, haurren garuna nabarmen garatzen den eta etorkizunean garatzeko funtsezko gaitasunak eta trebetasunak finkatzeko oinarriak ezartzen diren hazkundearen une berezia.

bezala, mutilen parte-hartzea neskena baino handiagoa da (% 40, batezbestekoa baino 13 puntu handiagoa).

- **Eskola partikular pribatuetara 6 urtetik 17 urtera bitarteko adingabeen % 15 joaten da** (parte-hartze handiena duen lurraldea da, Espainiako Save the Childrenen batezbestekoaren bikoitza).
- **6 urtetik 17 urtera bitarteko haurren eta nerabeen % 23k ez du gailu digitalik eta Interneteko konexio egokirik bere etxean** (aztertutako lurralde guztietako daturik baxuena da, Espainiako Save the Childreneko familien batezbestekoaren erdia)⁸.

3. grafikoa. Euskadiko Save the Childrenen (6-17) eta Espainiako Save the Childrenen (SCE) programetan parte hartzen duten haurren eta nerabeen ehunekoa, hezkuntza-zerbitzuak erabiltzen dituztenei eta gabezia digitaleko goieran daudenei dagokiena



Iturria: familiei egindako inkesta (2022).

Halaber, **Save the Childreni lotutako familietan bizi diren haur eta nerabeen % 24k ikasturtea errepikatu du noizbait** (aztertutako lurralde guztietako bigarren tasarik baxuena da, hein batean Lehen Hezkuntzako ikasleen proportzio handiagoak eraginda⁹). Errepikatzeen tasak antzekoak dira mutilen eta nesken artean, eta handitu egiten dira familia zabaletan (% 44), DBHko ikasleengan (% 29), muturreko pobrezia-arriskua duten etxeetan bizi diren haurren (% 33), osasun fisiko txarra edo erdipurdikoa duten familietan (% 36), eremu ez-seguruetan bizi diren familietan (% 33), gurasoek lehen mailako ikasketak dituzten familietan (% 37) eta lan bila ari direnetan (% 29). Lagin urriagoa erabiltzen duen testuingurua dela ahaztu gabe, adierazi behar da ez dela identifikatu ikasketak utzi dituen haur edo neraberik (aztertutako lurralde guztietan, batez beste, % 7,6koa da ehuneko hori).

Azkenik, matrikularen doakotasunak **Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haurren eta nerabeen % 48 baino ez du hartzen** (lurralde guztietako bigarren tasarik txikiena da, Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino 27 puntu txikiagoa). Haurrak eskolara bidaltzeak hileko 100 €-tik gorako beste kostu batzuk dakartza kasuen % 13an (Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino 11 puntu gutxiago).

c) Osasun-egoera eta osasun-laguntza


Osasun-maila ona eta bizi-ohitura osasungarriak izatea ezinbesteko baldintza da haurren eta nerabeen garapen osorako. Hala ere, pobrezia eta desorekak eragin negatiboa dute osasunean. Testuinguru

⁸ Areagotu egiten da muturreko pobrezia-arriskua duten haur eta nerabeengan (% 43).

⁹ Euskadin bizi diren Lehen Hezkuntzako ikasleen errepikapen-tasa aztertutako lurraldeen batezbestekoaren antzekoa da, (% 23), baina zertxobait txikiagoa da DBHko ikasleen artean (% 29 eta % 40, hurrenez hurren).

horretan, Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haurren eta nerabeen % 74ren **osun fisikoaren egoera** oso ona da, gurasoek adierazitakoaren arabera (Espainiako Save the Childreneko batezbestekoaren bikoitza baino gehiago). Osun-egoera ona duten neska-mutilak aintzat hartuta, Espainiako Save the Childrenen batezbestekoaren antzekoak dira (%87). Desberdintasun hori are nabarmenagoa da buru-osasunean. Euskadin, haurren eta nerabeen % 78k oso buru-osun ona du (familiek adierazitakoaren arabera), eta Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino ia 50 puntu gorago kokatzen da¹⁰. Aldi berean, Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten adingabeen % 10-12ren osun fisikoa edo mentala erdipurdikoa, txarra edo oso txarra da; aztertutako gainerako lurraldeetan baino txikiagoak dira zenbateko horiek. Lagin urriak zailagoa egiten du familiaren egoera ekonomikoaren eta osun-egoeraren arteko harreman argia identifikatzea.

4. grafikoa. Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haurren eta nerabeen proportzioa, eta Espainiako Save the Childrenen (SCE) kopuru osoa, haien osun fisiko eta mentalaren egoeraren arabera



Iturria: familiei egindako inkesta (2022).

Era berean, osun-zerbitzuetarako sarbidea unibertsala izan arren, familia zaugarriek zailtasunak izaten dituzte baliabide horiek erabiltzeko, eta oztopo horiek eragotzi egiten dute haurrek osun-eskubidea bete-betean baliatzea. Lehenengo hurbilketa batean, Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten familia gehienek adierazi dute beren seme-alaba guztiek honako hauek erabili dituztela azken urtean (behar izan duten guztietan): familia-medikua (% 77) eta sendagaiak (% 76). Aldiz, dentistaren kasuan, familien % 57k adierazi du hori (lurraldeka jasotako daturik onena), % 35ek material sanitarioa eskuratzeari dagokionez, eta % 21ek soilik osun mentalari dagokionez (Valentziako Erkidegoaren ondoren, non familien proportzio txikiak adierazten duen seme-alaba guztiek behar izan duten guztietan eskuratu dutela). Hala eta guztiz ere, oro har, aztertu ditugun lurralde guztietako batezbestekoak baino hobek dira. Testuinguru horretan, kostu ekonomikoa da haurren edo nerabeen familien % 9k dentistarengana joateko aukerarik ez izateko arrazoia, eta kopuru hori esanguratsua da, era berean, osun-materialaren eskuragarritasunean (% 8), baina ez osun mentalean edo sendagaietan (% 2 baino gutxiago).

Azkenik, Euskadi izan arren familiako diru-sarrera handienak dituen lurraldea, familien osun-gastuaren batezbestekoa aztertutako lurralde guztietako baxuena da (% 21 txikiagoa).


¹⁰ Badirudi desberdintasun horien jatorri ez direla, printzipioz, Euskadin bizi diren haurren, nerabeen eta familien profilaren ezaugarri bereizgarriak (jatorri afrikarreko familien pisu handiagoa, 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurren eta nerabeen proportzio handiena, diru-sarrera erlatiboki handiagoak, etab.). Adibidez, guraso bat afrikarra duten eta Euskaditik kanpo bizi diren eta oso osun ona duten haurren eta nerabeen proportzioa gainerakoan antzekoa da (% 28), eta zenbateko hori % 82ra iristen da Euskadin.

d) Elikadura osasungarria

Haur eta nerabe askok arazoak dituzte elikadura osasungarria eta nutritiboa izateko. Batzuetan, gabezia horiek gehiegizko pisu-arazoak eragiten dituzte (gehiiegizko pisua eta obesitatea), eta askotariko patologiak edo osasun mentaleko arazoak sor ditzakete. Testuinguru horretan, Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haur eta nerabeen % 22k obesitatea du, eta % 17k gehiegizko pisua¹¹; beraz, gehiegizko pisua dutenen ehunekoa % 39koa da¹², lurralde guztietako batezbestekoa baino 7 puntu handiagoa¹³. Lagina txikia bada ere, obesitatearen eta familia-pobreziaren arteko erlazioa dagoela ikusten da (muturreko arriskuan dauden haur eta nerabeen % 33, eta gainerakoen % 19), eta **zero eta bost urte bitarteko haurren erdiak du obesitatea**.

Elikadura osasungarria izateko faktore erabakigarrietako batean sakonduz, 5. grafikoan ikus daiteke Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten nesken eta mutilen % 57k ez duela egunean behin gutxienez fruta freskoa edo barazkiren bat kontsumitzen (batezbestekoaren antzera), eta % 18k ezin duela bi egunetik behin haragi, oilasko edo arrain errazio bat jan, hori izan arren gomendatzen den gutxieneko maiztasuna (Espainiako Save the Childreneko lurralde guztietan, batez beste, % 37koa da kopuru hori, eta % 5koa Espainian, ECV 2021).


5. grafikoa. Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haur eta nerabeen proportzioa Euskadin, fruta freskoaren edo barazkien, haragiaren, oilaskoaren edo arrainaren asteko kontsumoaren arabera, eta Espainiako Save the Childrenen guztizkoa



¹¹ Gehiegizko pisua honela definitzen da: GMIa 85. pertzentiletik gora duten haur eta nerabeen ehunekoa; 95. pertzentiletik gorakoa denean, obesitate esaten zaio.

¹² Informazio faltagatik, bildutako datuek inkesta egin zaien familietako haur eta nerabeen % 27 baino ez dute hartzen, eta, beraz, haurren eta nerabeen egoeraren alderdi horri buruz ematen den informazioa arretaz hartu behar da.

¹³ Intzidentzia hori biztanleria osoaren gainekoa baino handiagoa da (4 urtetik 16 urtera bitarteko haur eta nerabeen % 27,2, 2017ko ENSren arabera; gure estimazioaren arabera, % 39,6).



Iturria: familiei egindako inkesta (2022).

Europako Haur Bermearen arabera, eskolako jangela funtsezko zerbitzua da pobrezia edo gizarte-bazterkeriako egoeran dauden haur eta nerabe guztientzat, kalitatezko eta doako baldintzetan. **Gure inkestaren arabera, Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haur eta nerabeen % 86k eskolako jangela-zerbitzua erabiltzen du, dohainik gehienek (% 69).** Sarbide-maila handiena duen lurraldea da, eta Espainiako Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haur eta nerabeen batezbestekoa baino 19 puntu gorago dago. Hezkuntza-zikloa faktore mugatzailea da zerbitzuaz gozatzeko, nahiz eta DBH egiten ari diren nerabeen % 63k eskolako jangela erabiltzen duen (batezbestekoaren ia hirukoitza), eta ehuneko hori % 89ra iristen den Lehen Hezkuntzara eta Haur Hezkuntzara joaten diren haurren artean.

e) Etxebizitza egokia

Etxebizitza da haur eta nerabeen hazkuntzaren gune nagusia, eta, beraz, haien garapena egituratzen du. Gure inkestaren arabera, **Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haurren % 91 alokairu-erregimeneko etxebizitzetan edo erabiltzeko eskubidea lagatzen den modalitateetan bizi da** (lurralde guztietako baliorik altuena da, batezbestekoa baino 14 puntu altuagoa). % 5 soilik bizi da bere jabetzako etxebizitzetan (batezbestekoaren herena). Gainera, % 3 jabearekin batera bizi da etxebizitzan, eta jabea ez da gurasoetako bat, eta familiakoa izan daiteke edo ez. Aztertutako lurraldeen artean, Euskadi da bakarra non legez kanpo okupatutako etxe batean edo berehala utzi beharreko etxe batean ez den bizi haur bakar bat ere.

Jabetzako etxebizitzetan bizi diren haurren eta nerabeen kopurua txikia bada ere, pobrezia erlatiboan dauden edo pobrezian ez dauden pisua handiagoa da haien artean beste etxebizitza-erregimen batzuetan baino. Testuinguru horretan, deigarria da guraso espainiarrak dituzten adingabeen % 57 jabetzako etxebizitzetan bizitzea, jatorri atzerritarreko gurasoak dituzten neska-mutilen % 2aren aurrean. Azkenik, etxebizitza jabetzan duten familien batez besteko diru-sarrerak alokairu-erregimenean bizi direnenak baino % 16 handiagoak dira.


Familia askorentzat, eta bereziki zaurgarritasun-egoeran daudenentzat, etxebizitza duin baten kostua ordaintzea gehiegizko ahalegin ekonomikoa da, eta gizarte-bazterketako faktore gisa jotzen du. Testuinguru horretan, Save the Childrenen programetan parte hartzen duten Euskadiko familien **batez besteko finantza-ahalegina** % 57koa da, guztizko batezbestekoa baino 6 puntu altuagoa. Muturreko pobrezia-egoeran dauden familiek diru-sarreraren ehuneko handixeagoa zuzendu behar dute etxebizitza ordaintzeko (% 60), bai eta bi gurasoko familiek (% 59) eta jatorri latinoamerikarrek ere (% 57).

Espazio fisikoa den aldetik, etxebizitzak neurri handiagoan edo txikiagoan lagundu diezaieke haurrei behar bezala garatzen. Alde horretatik, 12 urteko edo gehiagoko neska-mutilen %42k –hau da, espazioaren erabilgarritasunak garrantzi handiena duen adinak– logela propioa du etxean, Espainiako Save the Childrenen batezbestekoa baino 2 puntu beherago.

Seme-alabak beren kargura dituzten eta zaurgarritasun-egoeran dauden familien etxebizitzaren zati handi batek gabezia larriak ditu, eta horrek eragin negatiboa izan dezake haurren osasunean eta ongizatean. Alde horretatik, Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten familietako haur eta nerabeen % 27 hezetasunak edo itoginak, zarata gehiegi edo argi natural gutxi duten etxebizitzetan bizi da (batezbestekoa baino 9 puntu beherago dago kopuru hori, eta daturik baxuena da, Valentziako Erkidegoarekin batera).

Era berean, energia-hornidura egokia izateak etxebizitza duina izateko baldintzetako bat izan behar du¹⁴. Horrela, Euskadi da azken urtean beren etxebizitzetan tenperatura egokia mantentzeko gaitasuna inoiz, ia inoiz edo batzuetan bakarrik izan duten familietan bizi diren haur eta nerabeen ehuneko txikiena duen lurraldea (% 39, lurralde guztien batezbestekoa baino 6 puntu beherago). Etxea beti edo ia beti tenperatura egokian izan dezaketen etxeen batez besteko errenta inoiz edo ia inoiz lortu ezin dutenena baino % 36 handiagoa da.

6. grafikoa. Euskadiko Save the Childrenen programetan parte hartzen duten haurren eta nerabeen proportzioa, eta Espainiako Save the Childrenen (SCE) kopuru osoa, haien familiek etxebizitza tenperatura egokian izan dezaketen aintzat hartuta



Iturria: familiei egindako inkesta (2022)

¹⁴ **Pobrezia energetiko** esaten zaio fenomeno horri, eta eragin negatiboa du haur eta nerabeen osasun fisikoan eta mentalean, bai eta haien hezkuntza-errendimenduan ere. Horregatik, berariazko neurriak hartu behar dira, haur eta nerabeek funtsezko ondasun hori eskura dezaten. Ekintza Planak kontuan hartu du premia hori, eta Europako Gomendioaren mugak gainditu ditu, ez baitzuen funtsezko zerbitzutzat hartu energia-hornidura eskuratzea. Estatu mailan eskuragarri dagoen azken datua 2020ari dagokiona da, eta datu horren arabera, etxebizitzan neguan tenperatura desegokia izan zuten biztanleen ehunekoa % 10,9koa izan zen (MITECO, Pobrezia Energetikoaren aurkako Estrategia Nazionalaren adierazleen eguneratzea, 2021eko abendua).

5. Haurrei dagokien markatzailea haur bermearen dimentsioen barnean

Atal honetan aurkezten diren adierazleek txostenean aztertu diren haur-pobreziaren dimentsioen laburpen kuantitatiboa eskaintzen dute.

Gure inkestaren diseinua –eta inkestatik adierazleak ateratzeko aukera– Europako Haur Bermea Ezartzeko Estatuko Ekintza Planaren (2022-2030) argitalpenaren aurrekoa bada ere, planean proposatutako adierazleak errepikatzen saiatu gara. Planaren adierazle-multzoak, oraindik behin betikoa ez bada ere eta Europako Haur Bermearen helburua lortzeko xedez datuak sortzeko eta biltzeko ahalegin handiagoak egin behar direla adierazten badu ere, estatuan eta autonomia-erkidegoan oinarrituko ditu bermearen jarraipena eta ebaluazioa.

Hori dela eta, Europako Haur Bermearen lehen markatzaile hau aurkezten dugu. Bermearen aurrerapenaren berri ematea da markatzailearen helburua, planeko termino beretan, hala, eremu espezifikotik finkatutako helburuekiko atzerapen (edo aurrerapen) esanguratsuak hauteman ahal izateko, 2025ean aurreikusitako tarteko ebaluazioaren aurretik.

Lehenago ere azpimarratu dugunaren ildotik, gure laginaren berriazko ezaugarriek estatuan oinarritutako ildo bat jasotzen dute lehen urte honetan, planarenetik bereizten dena. Aldiz, markatzailearen balioa urtez urte hartuko duen ikuspegi kronologikoan datza; hau da, Europako Haur Bermea hedatzean adierazleek izango duten bilakaeran, gure inkestaren xede diren pobrezia-egoeran dauden haurren hobekuntzari buruzko irizpen-elementu gisa.

1. taula. Haur Bermearen jarraipenaren adierazleak.

	2021	2021	Estatu-oinarriko lerroa
	Estatuaren esparruan	Euskadin	
1. ARDATZA: pobrezia-eraketaren aurkako borroka eta haurren eta nerabeen gizarte-babesa indartzea			
Pobrezia erlatiborako arriskua duten 0 urtetik 17 urtera arteko pertsonen ehunekoa (atalasea: % 60)	97,0%	93,6%	28,9% (2021)
Pobrezia handia jasateko arriskua duten 0 urtetik 17 urtera arteko pertsonen ehunekoa (atalasea: % 50)	94,4%	89,7%	20,7% (2020)
Pobrezia larriko arriskua duten 0 urtetik 17 urtera arteko pertsonen ehunekoa (atalasea: % 40)	83,1%	62,3%	14,1% (2020)
Diru-sarrerarik gabeko etxeetan bizi diren haur eta nerabeen ehunekoa	4,8%	4,1%	
2. ARDATZA: gizarte-eraketarekin gozatzeko aukera orokortzea, funtsezko eta kalitatezko zerbitzu eskuragarri eta inklusiboekin			
Haur Hezkuntzako lehen zikloa			
Lehen zikloko hezkuntza formalean dauden haurren ehunekoa (0-3), ikasturte bakoitzeko	17,4% (0-1)	Ez da aplikatzen	% 45,5 (2020); % 23,9 1-29 ordu; % 21,6 >30 ordu
	27,1% (1-2)	0%	
	36,5% (2-3)	27,3%	
	51,4% (3)	57,9%	

Urtebetekoen eskolatzeta-tasa	34,4%	0%	43,9% (2022)
Bi urtekoen eskolatzeta-tasa	52,4%	42,9%	63,1% (2022)
0-3** matrikularen kostua beren gain hartu behar duten haurren familien ehunekoa	21,8%	10,0%	94% (2016)
Hezkuntzako eta aisialdiko jarduerak			
Pobrezia-egoeran dauden eta hezkuntza- eta aisialdi-jarduerarik ez duten haurren ehunekoa	% 59,6 eskolaz kanpoko jarduerarik gabe	% 36,4 eskolaz kanpoko jarduerarik gabe	e.e.
	% 34,7 kanpalekurik, udalekurik eta bidaiarik gabe	% 27,8 kanpalekurik, udalekurik eta bidaiarik gabe	e.e.
Eten digitala			
Ekipamendu informatikorik eta Internetik gabeko haurren eta nerabeen etxeak	45,0%	23,6%	4,8% (6 urtetik 15 urtera arteko haurrak eta nerabeak) (2020-2021)
Osasun-beharrak			
Osasun-estaldura, tratamendu medikoa eta sendagaiak eskuratzeko beharra ase gabe duten haur eta nerabeen ehunekoa	Artatu gabeko osasun-estalduraren beharra duten eta gutxienez haur edo nerabe bat duten familiak: % 19	Artatu gabeko osasun-estalduraren beharra duten eta gutxienez haur edo nerabe bat duten familiak: % 18	Pobrezia erlatiboko egoeran dauden haur eta nerabeen % 0,8 (2017)
	Artatu gabeko sendagaien beharra duten eta gutxienez haur edo nerabe bat duten familiak: % 22	Artatu gabeko sendagaien beharra duten eta gutxienez haur edo nerabe bat duten familiak: % 21	
	Artatu gabeko osasun-materialen beharra duten eta gutxienez haur edo nerabe bat duten familiak: % 40	Artatu gabeko osasun-materialen beharra duten eta gutxienez haur edo nerabe bat duten familiak: % 47	
Aho-hortzetako arretako behar asegabeak dituzten haur eta nerabeen ehunekoa	54%	39%	Pobrezia erlatiboko egoeran dauden haur eta nerabeen % 17,2 (2017)
Osasun mentaleko arretako behar asegabeak dituzten haur eta nerabeen proportzioa	42%	51%	Hilabetean <1.050 €-ko diru-sarrerak dituzten etxeen kasuan, % 2,77 (15-24 urte)
Elikadura osasungarria			
Haurrak eta nerabeak dituzten, pobrezia-arriskuan dauden eta fruta freskoa eta barazkiak gutxienez egunean behin jan ezin dituzten etxeen proportzioa	62,6%	61,6%	11,9% (2020)

Haurrak eta nerabeak dituzten, pobrezia-arriskuan dauden eta bi egunean behin gutxienez haragi-, oilasko- edo arrain-errazio bat (edo horren baliokide begetarianoa) hartu ezin duten etxeen ehunekoa	37.7%	17,4%	11,9% (erdiko balioaren % 60ko atalasearen azpitik dauden eta haurrak dituzten familiak)
Etxebizitza eskuratzea			
Sabaian itoginak dituen edo hormetan, zoruetan edo zimenduetan hezetasuna duen nahiz leihoak edo zoruak egoera txarrean dituen etxebizitza batean bizi diren haurren eta nerabeen ehunekoa	35.9%	26,9%	Pobrezia-arriskuan dauden haur eta nerabeen % 32,2 (2020)
Haurrak dituzten eta etxebizitzaren kostu handiegia duten familien ehunekoa (batez besteko karga 0,51koa da)	% 78,6 (% 30en berdina edo handiagoa)	95,5%	Pobrezia-arriskuan dauden haur eta nerabeen familien kasuan, % 66,6 (atalasea: % 40; 2020)
	% 67 (% 40ren berdina edo handiagoa)	84,3%	
Pobrezia energetikoaren eragina murriztea			
Etxea tenperatura egokian izateko ezintasuna***	47.2%	39,3%	Pobrezia-arriskuan dauden haur eta nerabeen familien kasuan, % 20,5

6. Ondorioak eta gomencioak

Euskadiko adierazleak Estatuko gainerako lurraldeetakoak baino apur bat hobeak diren arren, haur-pobrezia desagerrarazteak eta zaugarritasun-egoeran dauden haurren eta nerabeen garapenerako oinarritzko baldintza materialak bermatzeak lehentasuna izan behar dute maila guztietako politika publikoetan, eta txosten honetan jasotako alderdi guztien lanketa integral bat egin behar da.

DSBEren erreforma

Funtsezkoa da DSBEren erreforma-prozesua osatzea eta kontuan hartzea bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren testuinguru berria eta azken hilabeteetan jasandako inflazioa, bai eta Eusko Jaurlaritzak seme-alabak ardurapean dituzten familientzako iragarritako dirulaguntzak edo Estatuko azken Aurrekontu Orokorretan jasotako hazkuntzarako laguntza ere. Hauek dira planteatzen diren erreforma nagusiak:

- Seme-alabak ardurapean dituzten familientzako zenbatekoak handitzea, batez ere familia gurasobakar amadunekoak, autonomia-erkidegoko tasa erreferentziatzen hartuta.
- DSBErako sarbidea erraztea une honetan prestazio hori jasotzen ez duten eta pobrezia-arriskuan dauden milaka familiei. Funtsezkoa da, halaber, baldintzak betetzen dituzten arren, gutxieneko diru-sarrera eta DSBE jasotzen ez duten familiei laguntza horiek eskuratzeko aukera ematea.
- DSBE behar duten familientzako baliabide tekniko bidez tramitatzeko zailtasunak konpontzea, baita horri buruzko informazio adeitsu eta zehatza eskaintzea ere.
- Nahitaezko izaeraz eta edozein egoeratan, haurraren interes gorena hartzea irizpidetzat, beren ardurapean adingabeak dituzten familien kasuan DSBE etetea edo amaitutzat ematea erabakitze orduan, DSBEren esparruan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten familiei beste era bateko zehapenak ezarri.
- DSBEren esparruko etxebizitzaren eskakizuna egokitzea, bizitzeko gutxieneko errentara moldatzeko. Diru-sarrerak bermatzeko errentarako, beharrezkoa da Euskadin gutxienez hiru urtez bizi izatea; bizitzeko gutxieneko errentarako, aldiz, nahikoa da Espainiako lurraldean urtebete bizi izatea. Eskakizun hori egokituz, gizarte-prestazio horien artean desorekak sortzea saihestuko litzateke, Euskadin hiru urte baino gutxiago bizi izan diren pertsonak aukera gutxiago baitituzte bestela.
- DSBE kobratzeko aukera errazteko, lehentasunen barnean kolektibo zaugarrienak bistaratzea eta txertatzea: guraso bakarreko familiak, desgaitasunak dituztenak, genero-indarkeriaren biktimak eta salerosketa eta sexu-esplotazioaren biktimak izan diren pertsona umedunak.
- DSBE sarbidea gutxieneko adina 18 urtera murrizteko konpromisoa betetzea. Dagokion foruerakundearen bidez erabat babestuta dauden haur eta nerabe askok, 18 urte betetzen dituztenean, gizarteratzeko laguntza berezia soilik dute eskura, eta 337 eurokoa da laguntza hori. Diru kopuru hori ez da aski emantzipazio-prozesu baterako, eta, zenbait kolektiboren kasuan, gizarteratzeko arazo bihurtzen ari da.

Haur Hezkuntza

Haurreskolak adibide onak dira 0-3 eskolen kalitateari dagokionez, eta, Save the Childrenek esku hartzen duen lurraldeen artean, Euskadi da 0-3 etapan eskolatzeko-tasa altuena duena, baina, hala ere, orokortzetik urrun dago oraindik. Gainera, 2023tik aurrerako 0-2 ikasgelen doakotasuna iragarri arte, haurren etapa horretan matrikulatzeagatik ordaindu behar zuten familien ehunekorik altuena Euskadin zegoen. Horregatik, honako hau proposatzen da:

- Familiek beren gain hartutako kostua gehienez ere % 25koa izango dela bermatzea. Jangela txertatzea Haurreskolak Partzuergoaren tarifakazio sozialean.
- Laguntzak ezartzea jantziak eta materiala erosteko nahiz haur-hezkuntzako beste eskolatzeko kostu batzuetarako.

- Administrazioak eskola-segregazioa saihesteko eta eskolatze orekatua egiteko garatu behar dituen sarbide- eta onarpen-mekanismoak esplizituki txertatzea. Hala, Euskadiko haur eta nerabe guztiek baldintza beretan izango dute hezkuntzarako sarbidea.

Aisia, kultura, kirola eta aisialdi hezitzailea

Diru-sarrera txikiko ikasleek aisialdi hezitzaileko eskolaz kanpoko aisia, kirola eta aisialdi hezitzaile jardueretarako doako sarbidea bermatzeko dirulaguntzen eta beken programak ezartzea planteatzen da, behar den ekipamendua erosteko eta, itsasertzean, garraiatzeko dirulaguntzak barne.

Errepikatzea

Inkestari erantzun dioten neska-mutilen % 24k ikasturtea errepikatu du, eta neurri hori ez da eraginkorra eta ez da bidezkoa. Horregatik, honako hau proposatzen da:

- Elkarlanean oinarritutako prestakuntza-programak eta irakasle-taldeei laguntzeko programak garatzea ikasgela heterogeneoak kudeatzeko estrategia eraginkorrei buruz, hala, homogeneizazioaren eta errepikatzearen inguruko sinesmen eta praktika pedagogikoei buruz hausnartzeko, esperimentatzeko eta horiek aldatzeko, mentorien, kanpo-aholkularien, feedbackaren eta sareko lanaren bidez.

Buru-osasuna

Gomendatzen da:

- Lehen mailako arreta sendotzea, haurren eta gazteen buru-osasunean prestakuntza espezializatua duten osasun-langileekin.
- BAPE plazen kopurua handitzea, estatuko osasun-sisteman psikologoaren kopurua handitzeko. ANPIR erakundearen gomendioei jarraituz, Euskadiri 9 plaza berri dagozkio, eta plaza horien kostua 7 urtean 7,6 M€-koa litzateke¹⁵. Kontuan hartuta EAEko biztanleriaren % 16,6k (2021ean) 0 urtetik 18 urtera bitartean dituela, haurrei zuzendutako psikologoaren plazen kostu proportzionala 1,25M €-koa izango litzateke.
- Psikiatriako espezialitateko BAME plazen kopurua handitzea, estatuko osasun-sisteman psikiatren kopurua handitzeko. Zehazki, 14 plaza berri. Horien kostua 4,1 M €-koa izango litzateke 4 urtean¹⁶. Kasu horretan, haurtzako psikiatra-plazen kostu proportzionala 673.000 € ingurukoa izango litzateke.

Aho-hortzetako osasuna

Arrazoi ekonomikoengatik dentistarengana joan ezin diren haurren eta nerabeen ehunekoak % 9koa dela ikusita, honako hau proposatzen da: Haurren Hortzak Zaintzeko Programa (PADI) gorantz egokitzea sustatzea, estaldura-adina 6 urtetik beherakoetara luzatuz. Gutxienez, prebentzio-prozedurak, pitzadurak ixtea, txantxar eta traumatismoen tratamendua, hortz-piezak eraztea eta larrialdien arreta txertatu beharko lirateke, baita esneko hortzetako edozein tratamendu ere.

Gainera, aho-hortzetako osasun ona izateko prebentzioak duen garrantzia kontuan hartuta, horrelako programak hortzak irteteen abiarazi beharko lirateke, eta, gutxienez, 15 urtera arte.

¹⁵ Hori da BAPEn urteko 28 plaza horiek handitzeko 7 urteen guztizko kostua. Suposatzen da psikologo guztiak sistema publikoan geratuko liratekeela egoitza amaitzean.

¹⁶ Hori da psikiatriako urteko 43 plaza horiek handitzeko 4 urteen guztizko kostua. Lau urte ezartzen dira, Psikiatriako egoitzaren iraupena delako.

Elikadura osasungarria eta gehiegizko pisuaren aurkako borroka

Inkestan parte hartu duten haurren % 39k gehiegizko pisua duela kontuan hartuta, honako hau gomendatzen dugu:

- Euskadin Haurren Obesitatea Prebenitzeko Estrategiari buruzko ebaluazio bat egitea.
- Eguneroko otorduen eskaintza zabaltzea, gosaria eskainiz.
- Eguneko otordu guztiak betetzeko jantokiko laguntzak zabaltzea, baita eskolaz kanpoko aldietan eta udako hilabeteetan ere, haur eta nerabeek, bereziki egoera ahulenean daudenek, kalitatezko elikagai osasungarriak izan ditzaten bermatzeko. Jantokiaren funtzionamendu segurua ziurtatzea inoiz baino beharrezkoagoa da familiek beren seme-alabei elikadura orekatua eskaini ahal izateko.
- Haur eta nerabeek elikagai osasungarriak eta kalitatekoak eskura ditzaten sustatzea, eta, bereziki, diru-sarrera gutxien dituztenak, gehiegizko pisuaren prebalentzia handiagoa dutenak. Horretarako, ikuspegi holistikoa hartu behar da, haurren eta nerabeen osasunerako kaltegarriak diren elikagaiak kontsumitzeko despizgarriak (ultraprozesatuak edo gantzetan eta azukreetan aberatsak direnak) eta informazio-maila handiagoak (adibidez, produktuen aurreko etiketak Nutri-Score sistemarekin orokortuz) konbinatzeko, ingurune eta bizimodu osasungarriak sustatzeko, edo haurrei, bereziki eskolei, zuzendutako kanpainak egiteko.
- Haurren gehiegizko pisuari eta obesitateari aurrea hartzeko programak bultzatzea ikastetxeetan. Aurretik ebaluatuta dagoen programa bat errepikatzea Euskadin: “Join the Healthy Boat”; programa hori urte akademiko osoan gaitutako maisuek abiarazi beharko lukete eskolako ikasketa-planaren barruan, eta honako hauen bidez garatuko litzateke: ikasgelako modulu presentzialak, jarduera fisiko gidatuak jolas-orduan eta 6 urtetik 10 urtera bitarteko haurren etxeetan gurasoekin batera osatu beharreko zereginen esleipenak. Ikastetxe bakoitzeko ikasgela bat hautatuko balitz proiektua aplikatzeko, ekimenak 221.770 euroko kostua izango luke Euskadin.

Etxebizitza

Etxebizitza ordaintzeko familiek egiten duten finantza-ahalegina handiagoa da Euskadin gainerako lurraldeekin alderatuta, eta, gainera, etxebizitza jabetzan duten familien ehunekoa txikiagoa da.

- Alokairu sozialeko etxebizitza publikoen parkea handitzea eta haur eta nerabeen presentzia lehentasunezko elementutzat hartzea etxebizitza sozialen eskaerari erantzuteko orduan. Hedapen horrek ahalegin koordinatuak eskatzen ditu Estatuko Administrazio Orokorraren eta autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen artean, eta horien etxebizitza-arloko eskumena finantzaketa-mekanismo egokien eskuragarritasunaren bidez indartu beharko litzateke (adibidez, kreditu ofizialerako sarbide handiagoa).
- Etxebizitza sozialen benetako eskariaren detekzio proaktiboa, arreta berezia eskainiz bizitegiaren arloan bazterketa jasateko arrisku handiena duten eskari-profilei, arreta berezia jarriz etxebizitza sozialen eskatzaileen erregistroetan izena emanda ez dauden familietan edo, beste edozein arrazoiengatik, etxebizitza libreen nahiz babestuen merkatuaren radarretik kanpo dauden familietan.
- Autonomia Erkidegoko zuzeneko laguntzak etxebizitza ordaintzera bideratzea lehentasunez, bai hipoteka bai alokairua ordaintzera, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, DSBE edo diru-sarrerak bermatzeko prestazio berriak jasotzen dituzten bizikidetza-unitateetara, hain zuzen ere, bi laguntza-mota horiek lotuz. Laguntzak aplikatzeko baldintzek bat etorri behar dute merkatu bakoitzeko alokairu-prezioekin, eta aldian-aldian eguneratu behar dira, alokairu-prezioaren muga irrealistak saihestuz.



Save the Children

www.savethechildren.eus